

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y  
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO  
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA  
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y  
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL  
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Gobernuak 161.886 euro inbertitu ditu Ziordiako kale batzuetan zoladura jartzeko

*Lanotan 325.000 euroko inbertsioa egin da*

Martes, 22 de marzo de 2011

Amelia Salanueva  
Murguialday Toki  
Administrazio kontseilariak  
Ziordia bisitatu du gaur kale  
batzuetan zoladura hobetzeko  
egindako lanak inauguratzeko.  
Lanetan 325.000 euroko  
inbertsioa egin da, eta kopuru  
horretatik Nafarroako  
Gobernuak 161.886 euro eman  
ditu. Salanuevak alboan izan  
ditu Pedro Pegenaute Garde Departamentuko zuzendari nagusia eta  
Udaleko ordezkariak.



Salanueva kontseilaria, Pedro Pegenaute eta udal-ordezkariak, Ziordian.

Zaharberritze lanak Santa María kalean, Tejería kalean eta Nuestra Señora de los Milagros ermitara doan kalean egin dira. Lehenengo biak Ziordiako kale nagusiak dira, eta jardun honen bidez, bide horiek oro har hobetzeko lanak amaitu dira. Izan ere, aurretik gas, telefono, argiteria, etab. instalazioak kanalizatu ziren. Orain egindako proiektuaren bidez, inguru batean asfaltozko zoladura berritu da eta bestean zoladura berritu da hormigoizko zolarriaren bidez.

Lana Toki Inbertsioen 2009-2012 Planaren barruan egin da. Plan horretan, Ziordiar 54.447 euro egokitu zitzaizkion askatasunez zehazteko kopuruari lotuta. Zenbateko hori inbertsioen plan honetan sartu zen udalek eta kontzejuek zenbateko hori zertara bideratu erabaki zezaten. Ziordiak kopuru hori gaur inauguratutako hobekuntzetan ere erabili du.